Gipuzkoako Foru Aldundia
Gobernantza Departamentua

Open Government Partnership

OGP LOCAL Euskadi

innobasque
Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

# KT2 Saioa

*Akta*

*2023.05.09*

MARAKA

# Aurkibidea

1. *Parte hartzaileak eta helburuak.*
2. *Gasteizeko Udalaren esperientzia ezagutu.*
3. *Gakoen eta helburuen kontrastea.*
4. *Esperientzia gehiago ezagutzen.*
5. *Hurrengo pausuak, kontrastatzeko.*
6. *Konpromiso Taldearen hurrengo saioak eta saioaren itxiera.*

**Eranskinak.*



**Aurkibidean klikatzen baduzue atal bakoitzera eramango zaituzte.*

# 1. Parte-hartzaileak eta helburuak.

**Bilera:** Konpromiso Taldearen bigarren saioa OGP III. Konpromisoaren Etika Publikoari buruzko zikloan.

**Data:** 2023.05.09

## Helburuak:

Bigarren saioaren helburu nagusiak hurrengoak izan dira:

- **Gasteizeko esperientzia ezagutu**.
- **Parte-hartzaileak testuinguruan jarri,** orainarte egin den lana ezagutzera emanez.
  - KT1 saioaren ondoren Begoña Romanekin izandako batzarra ezagutzera eman.
  - KT1 eta Begoña Romanekin hitz egin ondoren, ateratako **gakoak eta helburuaren definizio berria aurkeztu eta kontrastatu**.
- **Esperientzia inspirazional gehiago ezagutu**.
- **Gasteizeko esperientzia eta beste esperientzien inguruan hausnartu**.

# 1. Parte-hartzaileak eta helburuak.

## Parte-hartzaileak:

**Asociación de Derecho Colaborativo**
Joanes Alkorta

**Gasteizko Udala**
Kotelo

**Bilboko Udala**
Amagoia Ibarrondo

**Bizkaiko Foru Aldundia**
Elixabete Arrieta
Maria Presa

**Innobasque**
Goizalde Atxutegi

**Gipuzkoako Foru Aldundia**
Mikel Pagola
Garbiñe Aramendi
Itsaso Olaizola
Haritz Ugarte

**Maraka**
Garazi Camino
Joane Bilbao

# 2. Gasteizeko Udalaren esperientzia ezagutu.

- Gasteizeko Udalaren kasu inspirazionala ezagutzeko, bertako prozesuaren sortzaile eta komite etikoaren parte izan diren Amaia eta Anaren hitzaldia eraman da aurrera.
  - Proiektuaren inguruko materialera heltzeko, klikatu hurrengo estekan: https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=es&uid=u_65df5572_15bf0a1ac5c__7e17
- Hitzaldiaren ondoren, partaideek galderak egin eta hausnarketak partekatu dituzte.



# 3. Gakoen eta helburuaren kontrastea.

- Begoña Romanekin izandako Maiatzaren 2ko batzarretik eta KT1 saiotik ateratako gakoak (aktaren bukaeran atxikituta) eta hauek oinarritzat hartuz sortutako helburua aurkeztu da.
- Helburu berriaren analisia egin da. Prozesuaren helburua definitzen duen esaldiaren inguruko hausnarketa burutu da, esaldia hurrengoa izanik:

  *“Kode-etikoak/ikuspegi etikoa sortu, berrikusi eta barneratzeko prozesu bat sistematizatu, parte-hartzea ardatz hartuta.“*

- Gakoen eta helburuen inguruko hausnarketatik eztabaida amankomun ez gidatu bat burutu da. **Eztabaidan landutako puntu nabarmengarrienak hurrengoak izan dira:**
  - **Erakundeek ez dute kode etikoa eta jokabide-kodea desberdintzen.** Beraz, erakunde askok kode etikoa izan beharrean jokabide-kodea daukate eginda, edo biak nahastuta.
- Gasteizeko prozesua ezagutzean etika publiko, kode etiko eta komite etikoaren inguruan dagoen ezjakintasuna dela eta, **helburua ezagutza partekatzean zentratzea erabakiz**.
  - Administrazioko langileen artean argitu beharreko kontzeptu/zalantzak hurrengoak dira:
    - Zer da etika publikoa?
    - Zer da kode etikoa? Eta zer ez da?
      - Zeintzuk dira kode etiko eta jokabide-kodearen arteko ezberdintasunak?
    - Zer da komite etikoa? Betebehar, helburu, estruktura eta funtzionamendua ulertu.
    - Zer da konflikto etiko bat, eta zer ez?
    - Zer da metodologia deliberatzailea?
    - Zeintzuk dira kode etikoak modu parte-hartzailean sortzeko gakoak?

# 4. Esperientzia gehiago ezagutzen.

- Idazkaritza teknikoak martxan daukan ikerketan zehar ezagututako **hiru esperientzia inspiragarri aurkeztu** dira.
- Esperientziak ezagutu ondoren, Gasteizkoaren eta hauen inguruko **hausnarketa** burutu da taldeka, aurretiaz prestatutako txantiloi baten bidez hurrengo galderak erantzunez:
    - *Zerk inspiratzen gaitu? Zer eraman beharko genuke gurekin?*
    - *Zeintzuk dira indarguneak?*
    - *Zer uste dugu ez dela egokia? Zer ez genuke gurekin eraman beharko?*
    - *Zeintzuk dira ahulguneak?*
    - *Zein erronka uste dugu edukiko ditugula horrelako prozesu/ekimen bat aurrera eramaten?*
- Dinamikarekin amaitzeko, talde bakoitzak bere hausnarketak partekatu ditu.

- Aurkeztu diren **hiru esperientzia inspiragarriak** hurrengoak izan dira:
    - **Murtziako Unibertsitatearen kode etikoa:** Interesgarria da kode etikoa modu parte-hartzailean sortzeko jarraitutako prozesua.

      Dokumenturako sarbidea hurrengo estekan: https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/37/82/73782.pdf
    - **Kataluniako zerbitzu publikoaren kode etikoa:** Murtziako Unibertsitatearen adibidean bezala, burututako prozesua da nabarmengarria. Horretaz aparte, kodearen ezaugarri, aspirazio eta estruktura ere interesgarriak dira.

      Dokumenturako sabidea hurrengo estekan: https://administraciopublica.gencat.cat/web/.content/organitzacio/etica-publica/codi-etic-servei-public/Codi_etic_SP_cast.pdf

M Gipuzkoako Foru Aldundia Gobernantza Departamentua · Open Government Partnership · OGP LOCAL Euskadi · innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentzia Agencia Vasca de la Innovación

# 4. Esperientzia gehiago ezagutzen.

- **Dialètic:** Kataluniako zerbitzari publikoentzako sortutako zerbitzu berri bat da. Bertan hausnartzeko eta sentsibilizatzeko gunea eskaintzen da, baina horretaz haratago, kontsulta-kanal bat ere dago. Bertan, jarduera profesionalaren egunerokoan sortzen diren zalantza edo dilema etikoak azaldu eta hauen kudeaketan laguntzen zaie. Sentsibilizaziorako kapsulak, baliabideak, tresnak eta dilema etikoen adibideak ditu ere.

  Azpizerbitzu honek webgune zaindu eta erakargarri baten batzen dira, erabilgarritasuna handitzeko helburuarekin.

  Dokumenturako sarbidea hurrengo estekan: https://guies.antifrau.cat/es/node/94

  *Esperientzia inspirazionalen inguruko saioan erabilitako fitxak aktaren amaieran daude.

- Denbora falta dela eta, taldeek Gasteizeko Udalaren esperientzia inspirazionala bakarrik aztertu ahal izan dute xehetasunez. Osatutako txantiloiak aurkezpenaren amaieran daude, baina **hurrengo hausnarketak azpimarratu** behar dira:

  - Gako inspiratzaileak:
    - Formazio eta esperientzia egunerokotasunean apliatzea.
    - Metodologia deliberatiboa.
    - Aniztasuna bilatzea prozesuaren parte-hartzean.
  - Indarguneak:
    - Gaiean interesa piztea lortu izana lan-taldean.
    - Prestakuntza eta sentsibilizazioa oinarri bezala izatea.
  - Hobetzeko puntuak:
    - Materialaren estetika gehiago lantzeak gaia erakargarriagoa bihurtuko du.

# 4. Esperientzia gehiago ezagutzen.

- Komiteak gomendioak ematea hauek eskatuak izan gabe kontraesankorra izan daiteke?

- Ahulguneak:
  - Etengabeko langile egitura aldaketak.
  - Gatazkak ez dira komitera heltzen.
- Erronkak:
  - Etika publikoa eta kode etikoa erakargarri bihurtu.
  - Langile berriek kode etikoa barneratzea.
  - Denbora inbertitu ahal izatea.
  - Politikariek ere prozesua babestea.



# 5. Hurrengo pausuak, kontrastatzeko.

- Prozesuaren helburua definitzen duen esaldiaren inguruko hausnarketaren ondoren, **helburuarekin, aurrera jarraitzea erabaki da**: "Kode-etikoak/ikuspegi etikoa sortu, berrikusi eta barneratzeko prozesu bat sistematizatu, parte-hartzea ardatz hartuta."
- Erakundeen barne prozesua sistematizatzeko helburu horri erantzuteko, **gako nagusiak eta urrats nabarmenak bilduko dira**. Sistematizazio prozesu horretan bildu beharreko **hiru puntu nagusi identifikatu dira**, nahiz eta Konpromiso Taldearekin kontrastatzeko geratzen diren:

    1. **Gako nagusiak** (zer bai/ez da kode etikoa; zergatik eta zertarako kode etikoa...) bilduko dira. KT2 saio honetako hausnarketak aintzat hartuko dira horretarako (aurkezpenaren 3. puntua).
    2. Gakoez gain, **jarraitu beharreko urrats nagusiak** identifikatuko dira, hauen artean, **formazio proposamen zehatz bat** barneratuaz.
    3. Jada koderen bat onartua duten erakundeetan, **jardunbide-etikoaren eta kode etikoaren arteko ezberdintasunak identifikatzeko eta bien arteko lotura edota uztarketa egiteko** baliagarria izango da. Bide horretan, erakundeetan jada onartuak dauden jardunbide-kodeen hitzaurrea aztertzea abiapuntu izan daitekeela adierazi da. Honez gain, kodearen errebisio aldia prozesu hauek abiatzeko une egokia izan daitekeela adierazi da.

# 6. Konpromiso Taldearen hurrengo saioa eta saioaren itxiera.

- Konpromiso Taldearen saioen daten proposamenak aurkeztu eta kontrastatu dira, hurrengoak izanik:

- ~~**KT1: Martxoak 20** Marzo - *Gipuzkoako Foru Aldundia*~~
- ~~**KT2: Maiatzak 9** Mayo - *Vitoria-Gasteiz*~~
- **KT3: Irailak 19** Septiembre - *Innobasque*
- **KT4: Azaroak 7** Noviembre - *Gipuzkoako Foru Aldundia*



- **Itxieran Montehermoso kulturgunea ezagutu dugu**.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Gobernantza Departamentua

Open Government Partnership

OGP LOCAL Euskadi

innobasque
Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

# Eskerrik asko!

**3. Konpromisoaren idazkaritza teknikoa:**

## MARAKA

www.maraka.co
garazi@maraka.co

# Prozesuaren helburuaren definizioa

## *Definición del objetivo del proceso*

Gako batzuk:

- Ondorengo **tesitik abiatzea** erabaki da: udal gehienek kode etikoa eginda izango dutela uste da, baina lanketa sakon eta parte-hartzailerik gabe.*
  *Erakundeek kode etikoa eta jokabide-kodea desberdintzen ez dutelaz ohartzean tesi hau faltsutzat jo da, askok jodabide-kodea daukatelako eginda "kode etiko"-aren izenpean, dokumentuaren 6. orrian azaldu den bezala.
- **Eskalablea** izan behar da: herri txikientzako ere baliogarria izan behar da.
- Helburua ez da kode etiko izatea baizik eta hau (edo honen ikuspegia) lan-taldean eta egiteko moduetan **barneratzea.**
- Sistemak **erronka etikoei aurre** egiteko balio behar du, **prebentiboa** izan behar baita.
  - "Zein lau galdera egin behar ditugu prozesu bat martxan jarri aurretik?".

Algunas claves:

- Se ha optado por **partir de la tesis** de que la mayoría de los Ayuntamientos tendrán elaborado un código ético, pero sin un trabajo exhaustivo y participativo.
- Tiene que ser **escalable:** también tiene que ser válido para los pueblos pequeños.
- No se trata de tener un código ético, sino de **interiorizarlo** (o su visión) en el equipo de trabajo y en las formas de hacer.
- El sistema debe servir para **afrontar retos éticos,** porque hay que ser preventivo.
  - «¿ Qué cuatro preguntas debemos hacer antes de poner en marcha un proceso ?».

# *Eranskinak.

## *Esperientziak ezagutzen* *Conociendo esperiencias*

### Kataluniako zerbitzu publikoaren kode etikoa Código ético del servicio público de Cataluña

***Kataluniako zerbitzu publikoaren kode etiko hori Kataluniako Parlamentuak Generalitatearen Gobernuari 2016ko urrian emandako aginduaren ondorio da.***
***Kodearen helburu nagusia da zerbitzari publikoen jarduketa balioen gakotik bideratzea, horrela beren jardueraren osotasuna indartuz eta, horrela, zerbitzu publikoa hobetzen, kalitate demokratikoa hobetzen eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza berreskuratzen lagunduz.***

*Este Código ético del servicio público de Cataluña responde al mandato que el Parlamento de Cataluña hizo al Gobierno de la Generalitat el mes de octubre de 2016.*
*El objetivo principal del Código es orientar la actuación de los servidores públicos desde la clave de los valores, reforzando de esta manera la integridad de su actuación y contribuyendo así a impulsar la mejora del servicio público, la mejora de la calidad democrática, y la recuperación de la confianza de la ciudadanía en sus instituciones.*

*Dokumentua / Documento*

***Prozesua*** *Proceso*

**1. 22 pertsonako batzorde etikoa sortu** → lehendakaria, sei aditu, administrazio publikoetako, erakundeetako eta gizarte-eragileetako hamalau ordezkari eta idazkari bat

**2. Kode etikoaren 1. zirriborroa sortu** → Batzordeak sortua 10 hileko prozesu baten

**3. Publiko jakin bati kontsultak egiteko partaidetza-aldia irekitzea eta 2. zirriborroa sortu** → Erakunde, entitate eta pertsona adituentzat. 7 hilabeteko fase honetan ekarpenak egin zituzten.

**4. Kontsulta-aldi irekia egin eta 3. eta azken bertsioa sortu.** → Zerbitzu publikoak, erakundeak eta herritarrak ematen dituzten administrazio eta erakunde guztien zerbitzari publikoentzat irekia, participa.gencat.cat atariaren bidez.

**1. Crear un comité de 22 personas** → una en calidad de presidente, seis personas expertas, catorce representantes de las administraciones públicas, de las entidades y los agentes sociales, y una en calidad de secretaria

**2. Crear un primer borrador del código ético** → Creado por el comité en un proceso de 10 meses

**3. Abrir un periodo participativo de consultas a un público concreto y crear 2º borrador** → Dirigido a instituciones, entidades y personas expertas. Realizaron aportaciones. Esta fase duró 7 meses.

**4. Abrir un periodo participativo de consultas abierto y crear 3º y última versión.** → Abierto a los servidores públicos de todas las administraciones y organizaciones que prestan servicios públicos, entidades y ciudadanía, mediante el portal participa.gencat.cat

***Oharrak*** *Notas*

## *Eranskinak.

### ***Esperientziak ezagutzen*** *Conociendo esperiencias*

## **Murtziako Unibertsitatearen kode etikoa** Código ético de la Universidad de Murcia

***Murtziako Unibertsitatearen (UMU) kode etikoa erakundeak bere historiaren une konkretu honetan lehentasunezkotzat jotzen dituen zenbait balio zehazten dituen dokumentua da, gizartearen zerbitzura lehenengo ehun urteak bete dituenean.***

*El código ético de la Universidad de Murcia (UMU) es el documento en el que se explicitan algunos valores que la institución considera prioritarios en este preciso momento de su historia, cuando acaba de cumplir sus primeros cien años al servicio de la sociedad*

*Dokumentua / Documento*

***Prozesua*** *Proceso*

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **1. Fasea: Egoeraren eta ingurunearen azterketa** | 1. 1. Sei pertsonak osatutako talde teknikoa sortu | 1.2. Egingo den prozesuaren berri eman | 1.3. Erakundearekin zerikusia duten eragileei elkarrizketak egin (42) → | arazo moral ohikoenak eta horiei aurre egiteko kontuan hartu beharko liratekeen balio etikoak hauteman |
| **2. Fasea: Kodearen lehen proposamena idatzi** | 2. 1. Hiru galdeketa online egin, Erakundearen "Encuestas" aplikazioaren bidez, bat agente talde bakoitzarentzat. | 2.2. Hiru galdeketa online egin, lehen inkestan identifikatutako arazo etiko nagusien pertzepzioa berresteko. | 2.3. Talde teknikoak kodearen lehen bertsioa idazten du | |
| **3. Fasea: Planteamendu finala** | 3.1. Kodearen lehen bertsioa eragile-taldeei aurkeztu, hobetzeko iradokizunak jaso. | 3.2. Proposamen hobetua bidali etika publikoko adituei (kasu honetan Fundación Etnor) | 3.3. Haren oharrak jaso ondoren, azken kodea sortu | |
| **Fase 4: Kode Etikoaren Garapena** | 4.1. Kode Etikoa argitaratu eta jendaurrean aurkeztu | 4.2. Kode Etikoaren barne- eta kanpo-hedapena | 4.3. Kode Etikoaren balioak helburu horretarako ekimenen bidez garatzeko proposamena | 4.4. Kode Etikoaren Jarraipen Batzordea sortzea |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Fase 1: Análisis de situación y entorno** | 1. 1. Crear un equipo técnico conformado por seis personas | 1.2. Dar a conocer el proceso que se llevará a cabo | 1.3. Hacer entrevistas (42) a agentes relacionados con la organización → | detectar qué percepción tienen sobre los problemas morales más frecuentes y sobre los valores éticos que tendrían que ser tomados en cuenta para afrontarlos |
| **Fase 2: Redacción de una primera propuesta del Código** | 2. 1. Elaboración y tabulación de tres cuestionarios en línea mediante la aplicación Encuestas de la organización. Una para cada grupo de agentes. | 2.2. Llevar a cabo tres cuestionarios en línea para ratificar la percepción acerca de los principales problemas éticos identificados en la primera de la encuesta | 2.3. El equipo técnico redacta una primera versión del código | |
| **Fase 3: Formulación definitiva** | 3.1. Presentar la primera versión del código a los grupos de agentes con la finalidad de recoger sugerencias de mejora | 3.2. Enviar propuesta mejorada a expertas en ética pública (en este caso Fundación Etnor) | 3.3. Recibidas sus observaciones, se creó el código final | |
| **Fase 4: Desarrollo del Código Ético** | 4.1. Edición y presentación pública del Código Ético | 4.2. Difusión interna y externa del Código Ético | 4.3. Propuesta de desarrollo de los valores del Código Ético mediante iniciativas destinadas a este fin | 4.4. Creación de una Comisión de Seguimiento del Código Ético |

## ***Esperientziak ezagutzen*** *Conociendo esperiencias*

### DialÈtic

***DialÈtic zerbitzari publikoentzako zerbitzu berria da, eta kudeaketa publikoari aplikatutako etikaren arloan hausnartzeko eta sentsibilizatzeko gunea eskaintzen du.***

***Eremu horretan kontsulta-kanal bat ere badago, eta, bertan, jarduera profesionalaren egunerokoan sortzen diren zalantza edo dilema etikoak aipa daitezke. Zalantza horiek behar bezala kudeatzen ez badira, erakundearen osotasuna arriskuan jar dezakete. DialÈtic-ek etika eta osotasun publikoaren arloko eduki espezializatuak dituzten atalak, sentsibilizaziorako kapsulak, baliabideak eta tresnak eta dilema etikoen adibideak ditu, besteak beste.***

*DialÈtic es un nuevo servicio dirigido a los servidores y servidoras públicos que ofrece un espacio de reflexión y sensibilización en materia de ética aplicada a la gestión pública.*

*El espacio incluye un canal de consulta donde pueden dirigirse aquellas dudas o dilemas éticos que surgen en el día a día de la actividad profesional y que, si no se gestionan adecuadamente, pueden poner en riesgo la integridad institucional. DialÈtic incorpora, también, secciones con contenidos especializados en materia de ética e integridad públicas, cápsulas de sensibilización, recursos y herramientas y ejemplos de dilemas éticos, entre otros.*

*Web orria / Página web*

***Web orria*** *Página web*




***Kontsulta indibidualen inguruko azalpen bideoa***
*Vídeo explicativo de consultas individuales*

*Azalpen bideoa / Vídeo explicativo*

***Oharrak*** *Notas*

## ***Esperientziak ezagutzen*** *Conociendo esperiencias*

### **Gasteizko Udala** Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

### • 1. TALDEA: Elixabete Arrieta, Goizalde Atxutegi, Mikel Pagola

***Zerk inspiratzen gaitu? Zer eraman beharko genuke gurekin?***
*¿Qué nos inspira? ¿Qué deberíamos llevarnos con nosotras?*

- *Prozesua partekatua izatea.*
- *Aniztasuna bilatzea, denak parekatuz eta euren kodearen zati bilakatuz.*
- *Gomendio etikoak egiteko gaitasuna.*
- *Kode etikoa ez da kondukta kodea.*

***Zeintzuk dira indarguneak?*** *¿Cuáles son los puntos fuertes?*

- *Beharrezko denbora hartu dute.*
- *Komite Etilkoa sortu izana.*
- *Formazioa (prozesua, edukiak, bidelagunak).*
- *Komuniazioa (irakurterraza)*

***Zer uste dugu ez dela egokia? Zer ez genuke gurekin eraman beharko?***
*¿Qué creemos que no es adecuado? ¿Qué no deberíamos llevarnos con nosotras?*

- *Diseinua!! Estetika :) (Domun)*

***Zeintzuk dira ahulguneak?*** *¿Cuáles son las debilidades?*

- *Zergatik ez dira "gatazkarik" heltzen: ez dakigu identifikatzen, ez gara ausartzen...*
- *Gehiegi izan daitezke (batzorde etikoa).*
- *"Sektore gogorra". Botere sinbolikoa nola erakarri.*

***Zein erronka uste dugu edukiko ditugula horrelako prozesu/ekimen bat aurrera eramaten?***
*¿Qué retos creemos que tendríamos llevando a cabo un proceso/iniciativa de este tipo?*

- *Denbora (egiteko, aurre pausuak emateko justo) -> nahiz eta orain momentu ona izan (legegintzaldi berria).*

# *Eranskinak.

## ***Esperientziak ezagutzen*** *Conociendo esperiencias*

### **Gasteizko Udala** Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

### • 2. TALDEA: Itsaso Olaizola, Garbiñe Aramendi, Maria Presa, Joanes Alkorta

***Zerk inspiratzen gaitu? Zer eraman beharko genuke gurekin?***
*¿Qué nos inspira? ¿Qué deberíamos llevarnos con nosotras?*

- *Formazioa eta esperientzia: tresna erabilgarri gisa, egunerorako eta kulturan sartzeko.*
- *Aurreiritziak baztertzea lortzen da prozesuan: Metodologia deliberatiboa.*
- *Zeharkakoak bideratzeko baliogarria izan da (interdepartamentala).*

***Zeintzuk dira indarguneak?*** *¿Cuáles son los puntos fuertes?*

- *Barne partaidetza prozesu aberatsa eta anitza (multikanala).*
  - *Hasieran alderdi politiko guztiak.*
  - *Formazioa.*
  - *Galdetegia.*
  - *Komiteko kideak.*

***Zer uste dugu ez dela egokia? Zer ez genuke gurekin eraman beharko?***
*¿Qué creemos que no es adecuado? ¿Qué no deberíamos llevarnos con nosotras?*

- *Komitearen bi funtzioak: gatazka etikoetan kontzultak / gomendioak: baliogarriak, balioen harremana? Nolabait egin (exposición de motivos)*
- *Kode etikoa: codigo de conducta, jardunketa kodea.*

***Zeintzuk dira ahulguneak?*** *¿Cuáles son las debilidades?*

- *"Kode etiko" kontzeptua? Erakargarri nola egin...*

***Zein erronka uste dugu edukiko ditugula horrelako prozesu/ekimen bat aurrera eramaten?***
*¿Qué retos creemos que tendríamos llevando a cabo un proceso/iniciativa de este tipo?*

- *Maila politikoan sinestea: babestea.*
- *"Gatazka eremuak" identifikatzea.*
- *Emaitzak publiko egitea, gardentasuna -> mugimendua eragin dezake beste erakundeetan.*

# *Eranskinak.

## ***Esperientziak ezagutzen*** *Conociendo esperiencias*

### **Gasteizko Udala** Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

### • 3. TALDEA: Haritz Ugarte, Amagoia Ibarrondo, Kotelo

***Zerk inspiratzen gaitu? Zer eraman beharko genuke gurekin?***
*¿Qué nos inspira? ¿Qué deberíamos llevarnos con nosotras?*

- *Enfokea: hausnarketa etikoa bultzatu -> eguneroko gatazken aurrean irtenbideak adosten.*

***Zer uste dugu ez dela egokia? Zer ez genuke gurekin eraman beharko?***
*¿Qué creemos que no es adecuado? ¿Qué no deberíamos llevarnos con nosotras?*

- *Prozesua denboran gehiegi ez luzatzea.*

***Zeintzuk dira indarguneak?*** *¿Cuáles son los puntos fuertes?*

- *Interesa pizteko ahalmena/lanketa. Lortu dute erakargarria izatea.*
- *Prestakuntza + sentsibilizazioa oinarri bezala.*
- *Politikariak hasieratik sartuta.*
- *Baloreak adostea etxean.*

***Zeintzuk dira ahulguneak?*** *¿Cuáles son las debilidades?*

- *Egitura aldaketak: jubilazioak, OPEak, hauteskundeak...*
  - *Prozesua aldaketen aurrean babestu behar da (langile berriei harrera, prestakuntza plana, OPE galderak...)*

***Zein erronka uste dugu edukiko ditugula horrelako prozesu/ekimen bat aurrera eramaten?***
*¿Qué retos creemos que tendríamos llevando a cabo un proceso/iniciativa de este tipo?*

- *"Gauzak egin dituzten" erakundeei ulertaraztea arlo honetan ere landu behar dela. Ez du balio bakarrik arlo bat lantzea.*
- *Etika publikoaren ikuspegi orokorra indartu behar da -> prestakuntza bitartez.*